

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

PISA 2018k garrantzia emango dio irakurketari ingurune digitalean

Hezkuntzak gaur jakinarazi die ikastetxeei OCDEren komunikazioa

Osteguna, 2018.eko martxoak 1

Hezkuntza

departamentuak gaur jakinarazi die OCDE erakundearen (Lankidetzeta eta Garapen Ekonomikorako Erakundea) erabakia ikastetxeei. 53 zentro publiko eta itunpekok parte hartuko dute PISA 2018 (Programme for International Student Assessment) estudio nagusian.



53 zentro publiko eta itunpekok parte hartuko dute PISA 2018.

Hezkuntza sistemen

artean konparazioa egiteko munduan dagoen asmo handiko ebaluazio azterlan nagusia da PISA. Eta erabiltzen da jakiteko ikasleak, beren derrigorrezko hezkuntza burutzean, noraino dauden prestaturik beren bizitza profesional edo akademikoari ekiteko; ikastetxeek, hezkuntza sistemek eta gobernuek erabiltzeko, hobetu beharreko alorrak identifikatzeko; eta herri guztien artean, ikasleen errendimenduaren eta ikaskuntzaren inguruaren luzetarako konparazio-aukera izateko.

Nafarroa 2006an hasi zen lagin handiko PISA estudioan parte hartzen. Aurten, beraz, bosgarrenez egingo dira hiru urterik behin egiten probak. Irakurketa, zientziak, matematika eta alor berritzaile bat dira ebaluatzen diren gaitasunak; aurten alor berritzailea Gaitasun Globala izanen da. Irakurketa ingurune digitalean bereziki ikuskatuko du PISA 2018k. Gainera hainbat ikastetxetan Finantza Gaitasuna ere sartuko da proban.

Guztira, 2.200 ikasle inguruk parte hartuko dute probetan 53 ikastetxetan, eta PISA 2015ean bezala, ordenagailu bidez egingo dituzte frogak.